HURBIL

Testua eta irudiak: **NATALIA COLOMBO**
Itzulpena: **FERNANDO REY**
Kalandraka-Pamiela
ISBN 978-84-7681-564-9
36 orrialde. Azal gogorrean egina.
20x20 cm. Koloretako irudiekin.
Prezioa: 12,00 €
Gaztelaniaz *(Cerca),* Galegoz *(Cerca),* katalanez *(A prop),* portugesez *(Perto),* italieraz *(Vicini),* eta ingelesez *(So close)* argiitaratzen da ere.

Hurbil komunikazio faltari buruzko alegia bat da, pertsonen arteko harremanei, indibidualismoari, desirei eta zirrarei buruzko gogoeta poetiko sakona. Ikuspuntu literariotik, kontakizunaren soiltasuna eta barne-lotura dira nabarmenak, protagonisten ekintzen paralelotasuna erakusten baita: ahate bat eta untxi bat, nor bere bakardadean sarturik bizi direnak. Obrak gonbit garbia egiten dio irakurleari: gainerako pertsonei bizkarrik ez emateko, "bizitzaren une soilen baina zoriontsuenak beste batzuekin batera bizitzeko aukera ez galtzeko", idazleak berak adierazten duen bezala.

Ikuspuntu estetikotik, Natalia Colombok zenbait teknika nahasi ditu: margo akrilikoak, baina baita collagea ere, eta horretaz gaitera, tipografia berezia. Bistarako baliabide zenbait ere erabiltzen ditu, mugimenduaren eta simetriaren kontzeptuekin jostatzeko, inola ere ahantzi gabe kolore, ehundura, eta materialen nahasketa. Horrekin guztiarekin Natalia Colombok bere estilo eta izaera berezia eman dizkio lanari.

NATALIA COLOMBO (Buenos Aires, 1971)

Buenos Airesko Arkitektura, Diseinu eta Hirigintza Fakultatean egin zituen ikasketak, eta Buenos Airesen bertan bizi da. *La Nación* egunkarirako egiten du lan, gehigarrietako irudiak egiten, eta erakusketetan ere hartzen du parte. Zenbait argitaletxek haurrentzat egindako testu-liburu eta albumetako irudiak ditu eginak.

***Hurbil* liburuak Santiagoko Udalak eta KALANDRAKA argitaletxeak antolatutako Nazioarteko Compostela Sariaren 1. edizioa irabazi du. Sariketara 300 obratik gora aurkeztu ziren, herri askotakoak, eta epaimahaiak *Hurbil* aukeratu zuen, "ezin hobeki lotuak baitaude" kontakizuna eta irudiak, "irudiek ere hitz egiten baitute, isuriz bezala, bilakatuz". Saria urtero ematen da. Apirilaren 2an jakinarazten da zein den irabazlea, Haur eta Gazteentzako Liburuaren Nazioarteko Egunarekin. Diru-saria 12.000 eurokoa da.**

- **Gaia:** komunikazio falta
- **Adin egokia:** edozein adinetan
- **Nabarmentzeko moduko datuak:** Album Irudidunentzako I. Compostela Sariaren irabazlea
- **Aplikazioak:** pertsonen arteko harremanak, indibidualismoa, desirak eta zirrarak